

## Euskaldunak hizkuntzaren erabiltzaile zintzoak gara



Miel Loinaz TEIS aurkezten Espais Terminològics topagunean

Miel Loinaz UZEIko Terminologia Saileko buruak TEIS ikerketa-proiektuaren lehen emaitzak aurkeztu zituen Bartzelonan joan den azaroaren 7an, TERMCATek antolatutako Espais Terminològics topagunean. Maileguen tratamendua eta terminologiaren ezarpenaren inguruko topagune horretara bildu zirenen artean interes handia eragin zuen TEIS proiektuak.


TEIS Termino Ezarpenaren Informazio Sistema UZEIk garatu duen baliabide ahalsua da, Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordeak ematen dituzten arauak euskaldunek zenbateraino errespetatzen dituzten neurtzen duena.

Lau arlo hauetako euskara aztertu ondorengo emaitzak aurkeztu zituen Miel Loinazek Bartzelonan: komunikabideak, hezkuntza, administrazioa eta arlo sozioekonomikoa (enpresa-mundua).

Eta sailkapen nagusia kontuan izanda (hizkuntzaren egoerari erantzun nahirik), bi sail nagusitan banatu dugu prozesu osoa: lexiko orokorra batetik, eta terminologia (orokor samarra) bestetik.

Proiektuaren lehen ondorioek frogatu dute euskaldunok azken urteotako araugintza hurbiletik jarraitzen dugula, eta arauak errespetatzeko ahalegin handia egiten dugula euskaraz idazten dugunean. Izan ere, guztira, ezarpen maila % 94,4koa da (% 94,1

administrazioan, % 95,4 hezkuntzan, % 93,9 komunikabideetan, eta 93,9 arlo sozioekonomikoan). Berri pozgarria euskalgintzarentzat, zalantzarik gabe.



Hizkuntza naturalaren prozesamendurako teknologiak eta testuetako terminoen detekzio automatikoa egiteko tresnak baliatzen dira TEISen. Eta horien artean tLEMA (UZEIk garatutako termino-lematizatzailea) erabiltzen da.